

Sarrionaindiaren eta Méndez Ferrínen antzekotasunez*

(On the similarities between Sarrionaindia and Méndez Ferrín)

Gerrikagoitia Sagarna, Ahinitz

Eusko Ikaskuntza. Miramar Jauregia. Miraconcha, 48. 20007 Donostia
ahini@euskalerrria.org

BIBLID [1137-4454 (2009), 24; 121-134]

Jaso: 2006.03.29
Onartu: 2009.09.14

Lan honen bidez lortu nahi izan dugun helburu nagusia Joseba Sarrionaindia eta Xosé Luís Méndez Ferrínen arteko antzekotasunak bilatzea izan da. Antzekotasun hauek hainbat alorretan topatzen saiatu gara; hala nola, euren bizitzako aspektu desberdinetan eta idatzitako narrazio liburuetan. Era berean, haien narrazio-liburuak aztertuz, bakoitzaren estiloak eta kanpoko eraginek haiengan zerikusi zuzena dutela erakusten saiatu gara.

Giltza-Hitzak: Antzekotasunak. Bizitzako aspektuak. Narrazio-liburuak. Estiloa. Eraginak.

El objetivo principal de este trabajo consiste en determinar los paralelismos existentes entre Joseba Sarrionaindia y Xosé Luís Méndez Ferrín en diversos ámbitos, tales como su biografía y su obra narrativa. Por medio del análisis de sus libros, hemos intentado definir su estilo y mostrar las influencias externas que han tenido reflejo en ellos.

Palabras Clave: Similitudes. Aspectos de sus vidas. Libros narrativos. Estilo. Influencias.

Le premier objectif de ce travail consiste à déterminer les parallélismes existants entre Joseba Sarrionaindia et Xosé Luís Méndez Ferrín dans divers domaines, tels que leur biographie et leur oeuvre narrative. À travers l'analyse de leurs livres, nous avons essayé de définir leur style et de montrer les influences externes qui ont pesé sur eux.

Mots Clé : Similitudes. Aspects de leurs vies. Livres narratifs. Style. Influences.

* Lan honek Eusko Ikaskuntzaren 2005. urteko ikerketa laguntza jaso du.

SARRERA

Joseba Sarrionandia eta Xosé Luís Méndez Ferrínen arteko berdintasunetan hasiera batean gehiegi sinisten ez banuen ere, haien bizitza eta aipatu lanak aztertzen hasi naizen heinean, hainbat berdintasun topatu ditut. Ezin dira soilik haien lanen artekoak aipatu; izan ere, haien bizitzek badute zer esanik.

Bada, horixe izango da lan honen helburua: haien bizitzako nahi eta helburuak erkatu, bien lanak konparatu, elkarren arteko antzekotasunak bilatu, eta, era berean, bi idazleengan eragin nabarmena izan duten kanpoko idazleak aurkeztuko dizkizuet.

Horiek dira lan honetarako jarri ditudan helburuak; nahiz eta, seguruenik, sarrera xume bat besterik izango ez den.

1. BI IDAZLEEN BIZITZEN ZENBAIT DATU

Joseba Sarrionandia lurretan jaio zen 1958an. Filologian lizentziatua, euskal aldizkari ugaritan kolaboratu izan du, hala nola, *Zeruko Argia*, *Anaitasuna*, *Ibai-zabal* eta *Pott-en*. Honez gain itzultzailea eta euskaltzain urgazlea ere badugu.

1980an polizia espainiarrak preso hartu zuen eta hogeita zortzi urteko kartzela zigorra ezarri zioten ETAko kide izateagatik. 1985eko uztailaren hasieran Martuteneko espetxetik ihes egin zuen, eta geroztik hor nonbait bizi da, noiz-behinka libururen batekin hurbiltzen bazaigu ere.

Bere obra guztien artean aipa ditzagun *Izuen gordelekuan barrena* (1981), *Gartzelako poemak* (1992), *Hnuy illa nyha majah yahoo* (1995) poema-bildumak; *Narrazioak* (1983), *Atabala eta euria* (1986), *Ifar aldeko orduak* (1990) narratibazkoak; *Ni ez naiz hemengoa* (1985), *Marginalia* (1988), *Hitzen ondoreza* (1997) saio antzekoak; *Lagun izoztua* (2001) bere lehen nobela.

X. L. Méndez Ferríni dagokionez, Ourensen jaio zen 1938an, Espainia osoan faxismoa nagusitzen ari zela. Ferrínen familiak ez zuen gerraren ondorio latzik jasan, baina Francoren kontrako jarrera isil bat zuen. Giro burges, liberal batean hazi zen etxean eta inguruko espainolismo bortitzari aurre eginez, gaztetatik jarri zen Galiziako aberri eta hizkuntza zapalduaren alde. Idazten ere, oso gazte hasi zen, gailegoz beti.

Santiagon egin zituen unibertsitateko ikasketak. 1964an UPG (Unión do Pobo Galego) izeneko alderdi abertzale eta ezkertiarraren sorreran parte hartu zuen.

Frankismoaren borroka areagotu ahala, gogortu egin zen gobernuaren erantzuna ere, eta Méndez Ferrínek bere larrutan ezagutu zuen errepresioaren tamaina: ihesi ibili beharra, atxilotetak, espetxea...

Bere lanen artean aipa genitzake *Retorno a Tãngen Ata* (1971), *Antoloxía popular de Heriberto Bens* (1972), *Antón e os inocentes* (1976), *Con pólvora e magnolias* (1976), *Crónica de nós* (1980), *Amor de Arthur* (1982), *Bretaña*, *Esmeraldina* (1987), *Arraianos* (1991)...

Bi idazle on aurkezpenetan ikusi dugun bezala, haien bizitzek badute nolabait teko harremana; izan ere, biak herri eta hizkuntza zapalduetako idazle izateaz gain, politikak ere zati handi bat bete baitu haien bizitzan.

Francoren diktadurak bete-betean harrapatu zituen eta honek, neurri handi batean, haien literaturaren ildoak markatuko zuen. Biek egin zuten herriaren aldeko apustua eta errepresioa izan zen ordainetan jaso zuten zigorra. Atxilotetak, espetxea, ihesi ibili beharra... bere larritan ezagutu zuten bai Sarrionandiak eta baita Méndez Ferrínek ere; eta, jakina den bezala, Sarrionandiak oraindik ere, hor nonbait jarraitzen du aske eta gatibu era berean.

Aro horretako bizipen latzek haien lanetan ohiartzuna izatea, beraz, ez da harritzekoa. Beharbada horregatik, bakardadea, samina eta kartzelako gaiak sarritan agertuko zaizkigu euren lanetan.

Honez gain, azpimarratzekoa da literatura unibertsalak idazle hauengan izan duen garrantzia. Garai haietan hasi ziren Pott bandakoen eta Nova Narrativa taldekoei nahiak nabarmentzen, Euskal Herrian eta Galizian, hurrenez hurren.

Horien helburuetako bat herri literaturaz gaindi, jendeari literatura unibertsal bat bazegoela jakinaraztea zen. Ondorioz, Proust, Joyce, Jules Romain, Faulkner, Kafka, Huxley, Robbe-Grillet eta abarren eskutik zetorkien literatura haienarekin uztartu eta literatura berri bat egiten hasi ziren. Horien lanetan, beraz, kanpoko idazleen eragin ugari topa ditzakegu aurrerago ikusiko dugun bezala.

2. SARRIONANDIAREN 3 NARRAZIO LIBURUAK (NARRAZIOAK, ATABALA ETA EURIA ETA IFAR ALDEKO ORDUAK) ETA MÉNDEZ FERRÍNEN PERCIVAL E OUTRAS HISTORIAS-EN ARTEKO ANTZEKOTASUNEZ

Xosé Luis Méndez Ferrín *Percival e outras histórias* liburua hartuz gero, bertako zenbait ipuinek Joseba Sarrionandiaren narrazio batzuetan ohiartzuna dutela ikus dezakegu.

Esaterako, *Percival* deritzan ipuinarekiko antzekotasun nabarmenena *Atabala eta euria*-ko "Eguzkiak ortze urdinean nabegatzen" delakoan topa dezakegu. Galiziarren ipuinean *Percival* baso baten jabe da eta hiru irteera egiten ditu. Lehenengoa, *leonlobiscoarekin*¹ topo egiten dueneko da, Sarrionandiarenean kontatzen denarekin nolabait antza duena. Bertan ipuineko heroia Presebal izeneko zalduna da, zeina unikornio baten atzetik dabilen. Biak, bai

1. Otsoaren gorputza eta lehoiaren burua duen animalia fantastikoa.

leonlobisboa eta bai unikornioa, basoaren jabe dira eta, azkenean, bi heroiek akabatu egingo dituzte. Percivalek borrokan irabaziko dio eta Presebalek, nola harrapatu ezin asmatutik, dontzeila enbor bati lotu eta unikornioa hurbiltzean geziekin akabatuko du dontzeilaren hiru nebeekin batera; izan ere, unikornioa, animalia mitikoa, dama maitagarri baten altzoan etzanda geldirik dagoenean soilik ehiza baitaiteke. Unikornioak damarekiko duen maitasunak heriotzeraino eramango du, beraz:

Unikornio bakarti eta maiteminduak dagoeneko emana du bere bihotza; berak ez daki galdua duela (...) Eta unikornioa geldirik geratu da, amasa soseguz hartuaz; amodioa sosegurik sakonena besterik ez balitz bezala (AEE 15).

Honez gain, Sarrionaindiaren ipuinean Birila fraidearen kondairaren ikutu bat antzeman dezakegu. Birilaren kondaira oso ezaguna da². Honela dio: Ba omen zen Orreagako fraide bat komentutik irten zena urretxindorraren kantua entzutearen liluraz. Urretxindorraren kantua entzunez igaro zen denbora minutu batekoa izan zen fraidearentzat, baina laster, komentura itzultzean, konturatuko gara askoz gehiago igaro zela; izan ere, egoera berri bat eta fraide ezezagunak aurkituko baitzituen. Beraz, hemen ikus dezakegu gauzak gustora egiten direnean zeinen azkar igarotzen den denbora, zeinen azkar galtzen den denboraren kontzientzia... Bada, legendarekin amaitzeko, liburu zaharrak begiratzat konturatuko ziren Birila aspaldian basoan galdutako fraide bat zela eta inoiz ez zela haren berririk izan.

Kondaira honetan ikusi duguna, nolabait ere, “Eguzkia ortze urdinean nabigatzen” ipuinean gertatzen da. Presebal erromes itsu bati sagar bigun bat hartzeko zuhaitzera igotzen da eta hemen, adar artean, ametsetan bizitza oso bat igaroko du: unikornio zuriak erakarririk, bere atzetik, harrapatu nahian ibiliko da, honek dontzeila ezagutzera eramango du, maitemindu eta seme bat edukiko dutelarik. Azkenik, horrenbeste denbora lortu nahian ibili dena eskuratuko du: unikornioa ehizatzea. Animalia mitiko hau ehizatzean sortuko den uholdeak bere familia ebatsiko dio, ordea... baina ez, amets bat izan da, hamar minutu soilik iraun dituen ametsa...

Presebal zuhaitzera igo eta unikornioa ikusten duen momentutik bi errealtate nahasten dira ipuinean; edo hobeto esanda, Presebal erromesarekin dagoeneko errealtatea eta unikornioak liluraturik dagoeneko fantasia. Bi hauek bat egiten dute eta azkenera arte ez dugu jakingo benetan zer gertatzen den:

(...), eta Presebal amets aurpegiarekin dago arbola gainean.

– Zer, ez al zara jeitsi behar? –esan du agureitsuak arbola azpitik–. Duela hamar minutu hor goian zaudela (AEE 17).

Hemen Birilaren kondairan gertatzen denaren kontrakoa jazotzen da, beraz. Bizitza oso bat igaro beharrean hamar minutu soilik pasa direla, alegia.

2. Ikus Jon Kortazar “Ortze urdinean nabigatzen”.

Bestetik, “Ginebra erregina herbestean” narrazioan ere anakronismo joko bat ikus dezakegu. Arturo erregearen mitoa Durangaldean kokatzen digu gaur egungo teknologia eta guzti, Erdi Aroko Kameloten kokatu beharrean.

Anakronismo hau, hots, denborarekin egiten duen joko hau oso garrantzitsua da, mitoko pertsonaiak hurbildu, bertakotu egiten dituelako Aro Moderno honetan kokatuz.

Azkeneko berria duela aste bete hartu nuen –erantzun du Galahadek–, telegrama bat Thesalonikako hiritik, bizirik dagoela eta Istanbulerantz doala esateko (N 28).

Adibide honetan bezala, Méndez Ferrínen ipuinetan ere makinen erabilera somatuko dugu:

Percival levantouse da cadeira, pechou a radio, ollou pola fenestra. A longa rúa íase perder ao lonxe autre semáforos vermellos e verdes de anuncios fluorescentes (*Percival...* 17).

Eta Sarrionandiak Arthur erregearen kondaira denboran aurreratzeaz gain, kokalekuz ere aldatzen du Durangaldeko ohituretara (finean Euskal Herrikoetara) mugatuz.

(...) Hemen, Arthur aurkitu du sukaldean, abarkak janzen.
– Bitoriako feriara nioak –esan du Arthur erregeak– idiak saltzera, garbitu eta atera itzak gortatik (N 30).

Ginebraren ipuina alde batera utzirik, Méndez Ferrínen “A cancela” ipuinak ere izan dezake bere parekoa durangarrarenean: “hiri bazterreko edifizio batetarik”.

“A cancela”-n O. Phea izeneko langile batek hemezortzi urtetan zehar ibilbide bera egiten du lanera joateko, baina egun batean, beti paisaia bera ikusteaz nazkatuta, basoaren bestaldean zer dagoen ikustea bururatzen zaio. Horretarako, egurrezko atea pasatzen saiatzen denean horrenbeste urtez ikusten egon den paisaia koadro huts bat dela konturatuko da. Ez dago egurrezko aterik, ezta basorik ere. Koadro handi bat besterik ez da orain arte, urtero, egunetik egunera, ikusten zuen paisaia.

– A cancela e o bosco..., están pintados. ¡Todo é un cadro enorme! Detrás de cancela só hai un lenzo. A cancela e o bosco están pintados. ¡Son unha pintura..., un cadro! ¡Un enorme cadro ¡ detrás do cadro non hai nada! (*Percival...* 32).

Bada, “hiri bazterreko edifizio batetarik” delakoan antzeko zerbait daukagu. Zementozko edifizio batetik entzuten ziren oihuak zirela eta, Udaletxeak inspektore bat bidaltzen du oihu horien jatorria aurkitzeko. Oihuok zementozko edifizio batetik zetozela zirudien arren, inspektoreak ezinezkoa dela esaten du eta beste aukera batzuk aztertzen hasten da. Baina bat-batean zementozko edifiziora hurreratu eta edifizioaren barruko aldera eroriko da. Bertan gizontto bat aurkituko du, edifizio barrenetik oihuka dabilena, hain zuzen ere.

Inspektorea harriturik dago, ez du sinisten ate eta lehiorik gabeko zementuzko edifizioaren barrura erori dena; izan ere, ezinezkoa baita. Eta beraz, ez dira existitzen. Orain arte gertatutakoa ilusio faltsu bat besterik ez da inspektorea-arentzat.

- Zelan ez dela ezer gertatzen? Ez dakizu non gauden?
- Begira, zure oihua, gela urdin hau, hilok, gu, ez dira esistitzen.
- Ez garela esistitzen? –zioen ernegaturik gizonttoak, funtzionarioa broman ala sekreturen bat adierazten ari zen igarri ezinik–. Ez duzu senditzen hementxe zaudela? (AEE 44).

Inspektoreak ikasitakoari soilik egiten dio kasu, berak ikusten duena, sentitzen duena ez dira ezertxo ere, akademian ikasitakoak ezinezkoa dela erakusten duelako.

Barruan zegoen inspektorea zutitu egin zen, gizonttoari oihu hura zilegia ez zela esateko. Baina, berehala, abots hura ez zela esistitzen oroitu zuen, eta lo kuluska bat egitera etzan zen zementoan. (...)

Inspektore berriak goardiei ematen zizkien aginduak, iada, ametsetako gau-
ez iruditutako zitzaizkion, bere amets karratu eta grisetan (AEE 45).

Ikusi dugunez, bi ipuinotan protagonistak ezinezkoa den lekuetan (koadroan edota ate eta lehiorik gabeko zementozko edifizio batean) barneratzen dira eta inguruan dutena existitzen ez dela jabetuko dira, nahiz eta, inspektorearen kasuan oker egon.

“Sonbreiru baten istorioa”-n ere topa dezakegu gauza esanguratsurik; izan ere, ipuin honetako protagonistak, Werner Hebbel zaharrak, Lorelei izeneko nes-
katsa eder bat ezagutuko baitu ezkurdian. Bada, kasualidadez (edo seguruaski ez horrenbesteko kasualidadez), Lorelai izeneko ipuin bat topa dezakegu *Percival e outras histórias* liburuan.

Narrazioak eta Atabala eta euria liburuetan *Percival e outras histórias* libu-
ruarekiko aurkitutako antzekotasunak gutxi ez badira ere, beste bat topatu dugu
lfar aldeko orduak-en: “oroimena eta desira”.

“Oroimena eta desira” Sarrionandia beraren liburuei buruzko kritika parodi-
ko, apokrifo eta surrealista bat da. Ipuin honetan interesatzen zaiguna bere
narrazio lanaren berri ematen diguneko zatia da. Bertan, bosgarren ipuina, bere
lagun presoek buruzkoa da eta *Percival e outras histórias*-eko “Nhadron” ipuine-
an bezala, txori bihurturik, hegan, ihes egingo dute kartzelatik.

(...) menbranaren zabaltze eta indartzea kondatzen denean, harik eta preso-
ak apur apurka hegaldatzen hasten diren arte. Harriesetako begiraleak tiroka
hasiko zaizkie, banan bana hegaldatu eta ihes doazen presoek tiroka (...) (IAO
115).

Horixe bera da “Nhadron” ipuinean gertatzen dena, neska bele bihurtu eta
lehiotik ihesi baitoa.

(...) xa ela, miña doce Nhadron, encollera de todo e abrira os brazos de todo, e xa se convertira en corvo..., que bateu as azas e saúu pola fenestra.

E eu soupen todo, decateime entón de todo: ela, aos sábados, convertíase en corvo. Voltábase, ao dar as seis e meia no reloxo vermello, corvo negro (Percival... 52).

Bi autore hauen ipuinen artean zenbat antzekotasun dauden ikusita, ez da horren harrigarria bien artean nolabaiteko lotura dagoela esatea. Dena dela, honekin ez dut frogatu nahi idazle batek besteak idatzitakoa hartu duenik inspirazio gisa, baizik eta, biek idazle berdinen eragina izan dutela, finean. Beste era batera esanda, bai Sarrionandiak eta bai Méndez Ferrínek Pott banda eta Nova Narrativa Galegako helburuak gogoan, euren lanen bitartez literatura unibertsala bertakotu digute.

3. IDAZLEEN ESTILO BALIABIDEEZ

Xosé Luís Méndez Ferrínek 1958an argitaratu zuen *Percival e outras histórias* narrazio liburua. Liburua 14 narrazioz dago osatua eta liburuiko ezaugarri nagusi gisa, esan behar da, narrazioek ez dutela molde klasikoa jarraitzen; hain zuzen ere, forma narratibo berriak erabiltzea zelako bere helburuetako bat. Hori dela eta, aurreko narratiba galegoan agertzen den deskribapen errealista sahies-ten ahaleginduko da kosta ala kosta, mundu literario artifizialei leku eginez. Gauza bera esan dezakegu Joseba Sarrionandiaren kasuan; alegia, euskal literaturan ordura arte erabilitako moldeak alde batera utzi zituela berak ere, Ferrínek baino 20 urte beranduago izan bazen ere.

Bi idazleon idazteko estiloan kokatze aldera, aztertzen ari garen liburuetakoa ardatza zein den hasieratik garbi uztea komeni da. Izan ere, badira bi ezaugarri euren liburuetan nagusi direnak: fantasia eta biolentziaren agerpena. (Esan behar da, Sarrionandiarengan biolentziaren agerpena ez dela galiziarrek erabiltzen duenera iristen). Hori dela eta, jarraian aipatuko ditugun baliabide gehienak ezaugarri hau azpimarratzeko baliatutakoak izango dira.

Narrazio hauetako pertsonaiei dagokienean, aipatzekoa da irakurleak ezer gutxi dakiela hauen inguruan. Ez dira ezaugarri fisikoak ez psikologikoak ematen eta, hortaz, irakurleak dakien guztia, pertsonaien elkarrizketetatik ateratakoa baino ez da izango. Izan ere, pertsonaiok ipuineko egoera horretarako bakarrik dira sortuak, fantasia edota errealtateko elementuak erabilia. Esan dezakegu, beraz, pertsonaien konplexutasuna ez dela Ferrín eta Sarrionandiarengan topatuko dugun ezaugarria izango.

Bi idazleen lanetan topatuko dugun beste ezaugarri garrantzitsu bat ondokoa da: haien narrazio bakoitzean ekinga dramatiko bakarra gertatzen da. Narrazioaren hasieran, tentsio eta intentsitate handia sortzen dute eta gero bukaera bat-batean iritsiko zaigu. Irakurleak sorpresaz hartuko du amaiera; izan ere, argumentazioan ez baitzaio gertatuko denaren ezertxo ere aurreratu.

Honez gain, narrazioetan ez da ahots narratibo bakarra agertuko, diskurtsoan zehar ahotsen etengabeko aldaketa gertatzen dela ikus baitezakegu. Edonola ere,

gehienetan, narratzailea 3. pertsonakoa izango da eta ipuineko kontaketatik kanpo egongo da. Esan nahi da, narratzailea ez da orojakilea izango, beraz, egoera deskribatzeaz soilik arduratuko da. Hain zuzen ere, deskribapen horiek izango dira bai galiziarra eta bai euskaldunaren liburuetako orrialde gehienak beteko dituztenak.

Leku eta denboraren tratamenduari buruz, esan, nolabaiteko distortsioa gertatzen dela. Hots, narrazio fantastikoak izaki, denbora eta tokia kondairetan bezala ageri zaizkigula. Denboran orainaldia, lehenaldia eta geroaldia nahasturik ager dakizkiguke narrazioari misterio eta irrealitate puntu bat emateko.

Idazleek irakurlea adi egon dadin nahi dute eta, era berean, ipuinetako narrazioa errealtate historikoa ez dela ohartarazi. Horren adibide ditugu Sarrionaindiaren “Ginebra erregina erbestean” narrazioan agertzen diren anakronismo eta atopia jokoak:

Eta Arthur, bere idi gorri eta astun biekin abiatu da Urkiolara bidean. Geroago eta hurrinago, erregea eta bere abere biak, astiro, hiru puntu dira aldatz elurreztatuan geroago eta tipiagoak.

Ginebra atarira irten denean, Fool aizkoraz ari da enbor sendo batzuk ebakitzen (N, 30. or).

Ferrín lanetan ere planoak nahastuta agertzen dira eta aspektu sinestezin eta naturaz gaindikoak eguneko historiekin, sinesgarritasunarekin, nahasten dira irakurleari fantasia eta errealtatea aukeran jartzen dizkiolarik.

Honez gain, fantasian barneratzeko beste baliabide batzuk ere erabiltzen dituzte, mundu irreal aurkeztu eta errealtatetik ihes egieko lehen pausu modura. Esaterako, izen arraroak (O Phea, Kelma, Jhadron, Lorelai, Percibal...) eta gertaerak deskribatzeko leku exotikoak erabiltzen dituzte. Leku exotiko hauetan naturaz gaindiko gertaerak jazotzen dira, batzuetan ezagututako errealtatea sinbolizatu asmoz eta, bestetan, konplikazio psikoanalitiko zenbaiten azalpen gisa. Edonola ere, errealtatetik ihes egiten du.

A radio estava doorosamente silandeira erriba de unha mesiña de vimbio. Por todo un lenzo de parede, esgaravellos e bolboretas espetados de longo alfinete daban un áer de coor e de morte. Longas espadas, exóticas e partidas polo meio, xacían por todo o chao da estancia (PH, 17.or).

Adibide honekin ikus daitekeen bezala, Erdi Aroko zaldun-mundua eta eguneroko etxeko mundua nahasten ditu, errealtatea eta fantasiaren eszenarioak kontrajarriz, logika erreetik kanpo gertatuko diren gauzak aurreikusten uzten digularik.

Aldi berean, mundu erreal eta fantastikoa bereiztean leihua edota ate edo horma modukoak agertuko zaizkigu. Adibidez,

Percival levantouse da cadeira, pechou a radio, ollou pola fenestra. A longa lúá fase perder ao lonxe antre semáforos vermellos e verdes de anuncios fluorescentes.

Zarrou a fenestra con forza e choeuna con empeño. (...) A fenestra ben pechada. Do outro lado coches e cabarets, si..., pero do outro lado da fenestra (PH, 17. or).

Lehen aipaturiko denbora eta lekuaren joko horrekin batera, misterio eta irrealitate hori indartu nahian, narrazio gehienak giro ilun batean kokatzen dira, batez ere, Ferrínen narrazio liburuan. Egoera hauetan tragedia eta egoera biolentoak gertatuko dira eta honekin batera, giro fantasmagorikoa areagotzeko, intsektu disekatuak topatuko ditugu.

Enormes armarios, outos até o teito, tapaban as catro paredes da cuarto; dentro, as inmensas fileiras de insectos fixaos sóbor de planchas de cortizo. A mesa de traballo, (...) pinzas e tres ou catro exemplares recentemente capturados. Nun lado, o vello sofá gris... (PH, 85. or).

Aztertzen ari garen liburuetan biolentziaren agerpena ere garrantzitsua dela aipatu dugu lehenxeago. *Percival e outras historias* liburuaren kasuan, esan genezake, gertaera biolentoak garai hartan bizi zituzten gertuko egoera politikoa-ren sinbolo gisa agertzen zaizkigula. Honen isla, hala nola, "O asesino", "O ver-dugo" eta "O dique da area" narrazioetan antzeman dezakegu.

Narrazio hauetako bortizkeriarekin zuzenki lotua agertzen zaigu ezinezko mai-tasuna. Ferrínen ustez, gizakien arteko harremanetan beti biolentzia izango da nagusi. Gainera, agresibitate hori inguru guztietan izango da nagusi, bai animalia bai gizakien artean.

"Mantis religiosa" izenekoan, esaterako, zera esaten digu:

Naquela, a femia farta de pracer arroudeou coas súas pinzas o pescozo do noivo; il pernexus desesperado e ila devorouno, devorouno con tremor de ledicia, devorou-no inteiro e completo. A consumación, o sumo do pracer sexual na femia barbante-sa ven dado no tregar en bocadelas ao namorado (*Percival*... 88. or).

Sarrionaindiaren kasuan ere, behin baino gehiagotan agertuko zaigu ezinezko maitasun horren isla.

XXIX

Oilaritearekin, joateko ordua zuela esan zidan. Nik munduko oilar guziak madari-katu nituen, baina ihalgi egin nintzen ohetik. Jantzi ginen eta lagundu egin nuen eskaileretan behera eta atariraino. Mosu bat eman eta bakarrik joan zen baratzean zehar, bere oinetako finez sekulabelarra zapalduaz.

Ni etxeruntz itzuli nintzen (N, 118.or).

4. KANPOKO IDAZLEEN ERAGINA SARRIONANDIA ETA MÉNDEZ FERRÍNEN-GAN

Literaturaren historian zehar, edozein obra literario, autoreak bere irakurkete-kin eta jasotako eragin soziokulturalekin landutako elementuez osatuta agertuko zaigu. Hau da, nobelista berrien diskurtsoak aurretik dituzten testu konjuntuen ondorengo giza ulertu behar dira.

Méndez Ferrín kokatzen dugun Nova Narrativa Galega mugimendua ulertze-ko, bi eragin kontuan hartu behar dira nahitaez: alde batetik, herentzia literario galiziarra, eta, bestetik, Frantziako Nouveau Roman eta Sartre, Kafka, Joyce eta Faulknerren lanen eragina. Izan ere, Nova Narrativako idazle galiziarrek agerian utzi nahi dute haien lanen aurreko idazle europarren eragina.

Gauza bera gertatuko zaigu Sarrionandiaren kasuan ere. Sarrionandiaren lanetan Euskal Klasikoen ezagutza sakonaren isla antzemateaz gainera, bere aurretiko idazle europarren isla ere nabaria baita.

Edonola ere den, bi idazleengan berebiziko eragina dutenak aipatuko ditugu lehenbizi.

Zalantza izpirik gabe, aztertu ditugun liburuotan idazle hegoamerikar baten itzala antzeman dezakegu: José Luis Borgesena.

Esan dezakegu, Borgesengandik hartu duten ezaugarri nagusia errealismo magikoa dela. Era berean, hau da, Sarrionandiak Borgesengandik jaso eta euskal ipuingintza modernoari egindako ekarpen garrantzitsuenetakoa, logika fantastikoa, alegia.

Borgesi ez zaio interesatzen bere ipuinetan munduko konplexutasuna narrazio erreale baten bidez azaltzea; helburu hau inguruko errealtatea, mitoa, ametsa eta fantasia uztartuz lortu nahi du. Hainbat adibide topa ditzakegu bai Sarrionandiaren *Narrazioak*-en eta bai Ferrínen *Percival*... liburuan ere, baina bat aipatzearren, iurretarraren “Itzalorekin solasa” ipuina har dezakegu.

Ipuin honetan literaturari buruzko gogoeta egiten digu egileak, gauza bera defendatuz. Bertan errealtatea agertzea ez zaiola interesatzen esplikatzeko dio bere itzalari *errealitatea bizi egiten denez ez da hainbeste kontatu behar*. Are gehiago, bere nahiak argitzen dizkigu *egoera baten testimonioa ematea, misterio eta posibilitateen eremuetara sartzea (...)*. Ipuin honetan bertan honako esaldi hau irakur dezakegu: *ez zen bere buruaz sobera fidatzen, errealtatearen eta fantasiaren artean esploradore (...)*. Idazle protagonistaren sentsazio honek argi uzten digu zer nolako ipuina den, errealtatea eta fantasia nahasturik dituen bat, alegia.

Borgesek errealismo magikoari buruz solasean, besteak beste, honako teknika hauek erabiltzen zirela zioen: kaxa errusiarraren teknika, hau da, ipuina ipuinaren barruan sartzea, ametsaren garrantzia, bikoiztasuna eta denboran zeharreko bidaia.

Ezaugarri hauek denak betetzen dira Sarrionandiaren eta Méndez Ferrínen ipuin bildumetan, beraz, ezinezkoa da errealismo magikoa eta Borges en eragina ukatzea.

Gainera, Sarrionandiaren kasuan ezin utz daiteke aipatu gabe Borgesi egiten dion omenaldia. Izan ere, Borges en *Narraciones* (Cátedra 1980) liburuaren izen-

burua erabiltzen du bere liburuarentzat, eta, hau gutxi balitz, Borgesek liburuari emandako egitura bera jarraitzen du Sarrionandiak: Narrazioak hamarnaka bildurik, amaieran narrazioei buruzko oharra emanez eta azkenik Bernardo Atxagaren epilogoarekin gertatzen du.

Bigarren eragin nagusienetakoa Kafka dugu. Bere metamorfosiaren oihartzuna erraz antzeman daiteke. *Narrazioak*-en, esaterako, “Amodio fantasía bat”-ean uso zuria neskatarik eder bilakatzen da.

Lehiorantza begiratu nuen, (...) eta usapal zuria bat ikusi nuen (...). Geroxeago, berriro begiratu nuen leihora, eta neskatarik bat zegoen, geldi eta isila (N 112-113).

“Mezurik gabeko heriotza” ipuinean ere itxuraldaketa bat gertatzen da, Martintxo hil eta bele disekatu bilakatzen baita.

Itzuli egiten denean bele bat dakar eskuan, eta belea ez da hegaldatzen. (...) Beletak ez du negarrik egiten. Isildu egiten naiz oratzean. Ez du kroakik egiten, ez da hegaldatzen, iluntasuna baino beltzagoa da, eta hezurto usaina du (N 49).

Asunek Martintxo lurrean hilik aurkitzen du eta ipuina amaitzen da:

Orduan, belea mogitu egin zen hume handi eta mutu haren hatzen artean, zabaldu egin zituen bere hegala, eta igan egin zen, gauean galtzera (N 68).

Méndez Ferrínen liburuan, bestalde, “Nhadron” da adibide garbiena, bertan neska bele bihurtzen baita.

– Si, os meus olhos non son agora grises, non son da cor da néboa. Agora están negros e o meu cabelo igual. Iso só é o principio. (...)

Por fin parou de soar o despertador, pero cando parou –Zabrate, amigo- xa ela, miña doce Nhadron, encollera de todo e abriu os brazos de todo, e xa se convertira en corvo..., que bateu as azas e saíu pola fenestra (*Percival...* 52. or).

Kafkarengandik absurduaren ideia ere bereganatzen dute. Sarrionaindiaren kasuan “Arima naufrago bakartiak” izenekoan mezudun botilak jaurtitzen dituzte, baina mezurik izkiriatu gabekoak dira.

Whiski botilak urazalean linburtzen ziren, korrante eta brisarak eramanki, eta euren alboan pausatzen ziren albatro mutuek soilik igar zezaketen barruko paper puska haietan ez zegoela deusere izkiriaturik (N 24).

“Estazioko begiradak”-en ere emakume bat 11:00etako trenaren zain dago, baina ez dago 11:00etako trenik. “Gaueko enkontrua”-n, berriaz, zakur batek hitz egiten du eta ostatuan piano bat dago: elementu zein baino zein absurduagoak.

Bestalde, Ferrínen lanean absurduaren eragina “Los ojos de Kelma” eta “O templo” ipuinetan nabari dezakegu. Lehenengoan, Kelmak begiak ateratzen dituen momentuan eta, bigarrean, Rij-ek apezpikuei hitz egin arren, erantzunik jasotzen ez duelako asperturik, tenplotik irteten denean.

Señores, recibín o seu aviso e apresenteime axiña no Templo. ¿Que é o que me teñen que dicir?

Os cinco homes, que eran cinco sacerdotes, non abriren a boca (*Percival...* 95. or).

Edgar A. Poe ere eraginen artean aipatu beharrekoa da. Bai Sarrionandiak eta bai Ferrínek estetika makabroa hartu dute Poerengandik. *Narrazioak*-eko adibide gisa, “Arima naufrago bakartiak” ipuinean, irlandarraren gorpua uretara bota eta berunezko pisua jartzea ahazteagatik urgainean geratzen denean.

(...) Gainerako marinelek, isilik, maindire zuri batetan bildurik jaurti zuten itsasora. Baina ahaztu egin zitzairen berun zatiren bat gehitzea eta gorpua urgainean geratuko zen egunetan, belero geldoaren aldamenean (*N* 21).

edo izurritearen ondorioz, hildakoen gorpuk izara gabe uretara botatzen dituztenean.

(...) goruntz begira hondoratzen ziren, astiro eta goruntz begira, ur gardenetan behera, itsasbelarretan galdu arteraino (*N* 23).

Méndez Ferrínek Poeren estetika makabroa ere asko erabiltzen du. “Os ollos de Kelma” ipuinean Kelmak begiak ateratzen ditueneko eskena zirrargarria modu gordinean deskribatzen du.

– Ois, Hen, ¿e logo por que sempre falas de meus ollos?

Hen respondeu tateando:

– Pois..., son..., sonche bonitos.

– E raros –engadiu Maong. (...)

– Si... Os meus ollos son raros..., podédelo miralo de preto.

E sacou un ollo e diollo a Maong, e sacou o outro ollo para llo estender a Hen. As órbitas de Kelma ficaron baleiras e negras (*Percival...* 38).

“Mantis religiosa” ipuinean ere, makabrotasun osoz jarraitzen dute begira emeak arra nola jaten duen ikustean.

Naquela, a femia farta de pracer arrodeou coas súas pinzas o pescozo do noivo; il pernexou desesperado e ila devorouno, devorouno con tremor de ledicia, devorouno enteiro e completo. A consumación, o sumo do pracer sexual na femia barbantesa veu dado no tragar en bocadelas ao namorado (*Percival...* 88).

Amaitzeko, “mezurik gabeko heriotza” ipuina ere nahiko makabroa dela esan dezakegu: animalia disekatuak, edabea etab. Dena dela, makabrotasun hau Faulkner-en eraginarekin lotu beharko genuke. Izan ere, ipuin honetan autore honen *Hotsa eta ardaila* liburutik hartutako aipu bat agertzen da epigrafe gisa eta zenbait paralelismo soma ditzakegu Martintxo eta Benjy-ren bakarriketen artean. Biek pertsona atzeratu batean pentsamoldea imitatzen dute: esaldi laburak, batzutan gauzak era inozo batean esplikatzea etab. Gainera, ipuin biak ingurune errural baten kokatuta daude eta bietan gertakari bortitzak kontatzen zaizkigu.

5. BESTE ZENBAIT ERAGIN

Aipatu idazleek Sarrionandia eta Ferrínengan eragina izan dutela ikusi dugu, baina horrek ez du esan nahi eragin horiek bakarrik jaso dituztenik.

Sarrionandiaren kasuan ez du idazleengandik bakarrik edaten, zinemagile eta musikariek ere berebiziko garrantzia baitute bere lanetan. Hala ere, idazleek betetzen dute gehien Sarrionandiaren eraginen zerrenda. Hemen sartuko genituzke Kavafis, Eliot, Faulkner, Pavese, Gottfried Benn, Dos Passos eta Jonathan Swift. Era berean, liburuetako aipuetan agertzen zaizkigunen artean, Hofmannsthal eta Li-Po sinbolistak; Coleridge, Melville eta Novalis erromantikoak; Marcel Schwob, Villiers de L'Isle Adam, Conrad, Stevenson eta Carrol erromantizismo ostekoen artean eta Cummings-en eragina aurkituko ditugu errealismoaren bidetik. Haez gain, euskal idazleak ere kontuan hartzen ditu, noski, eta, honela, Sarrionandiak (beste askok bezala) erreparatzen dituen idazleen zerrenda izugarri luzea dela ikus dezakegu.

Ferrínen kasuan ere idazleok eragina izan dute, baina Tolkien ere eraginen artean aipatu beharreko idazlea da Frantziako "Nouveau Roman" delakoarekin batera. Honez gain, noski, idazle galiziarren eragina dago. Izan ere, Méndez Ferrínek idazleak bi iturburu izan behar dituela dio: alde batetik, bere hizkuntzan aurretik sortu den literatura on guztiaren tradizioa eta, bestetik, munduan barrena beste hizkuntzetan egin denarena. Ferrínek behin baino gehiagotan salatu du egungo idazle galiziar askok ez dutela ez bata ez bestea ezagutzen, literatura espainola besterik irakurtzen ez dutelako eta kultura espainiar hutsa bizi dutelako. Berau gogoan hartzekoa da, izan ere, arazo hau ez da Galiziako kontua soilik.

Ferrínek sarritan salatu izan du idazle galiziar askoren dialektizazioa, hots, gaztelaniatzko hitz eta esamoldez aritzea morfologia gailegoaren itxurapean. Bestalde, hau ezin egotz diezaiokegu Ferríni, izan ere, bere lanetan hizkuntza aberats, doi, malgu eta gaztelaniaren morroi ez dena topatuko baitugu.

6. ONDORIOAK

Biak hizkuntza gutxituetako idazleak izaki, haien aberri eta hizkuntzaren alde agertu izan dira. Honela, Sarrionandiak euskaraz eta Méndez Ferrínek galegoz idatzi dituzte haien lanak. Herri literaturak eta literatura unibertsalak uztarturiko literatura berri baten aldeko apustua egiten dute, Pott bandako eta Nova Narrativa Galega taldeko partaide gisa. Mundu guztiko literaturaren erreferentzien bitartez, Euskal Herria eta Galiziaz gaindiko munduak gerturatzen dizkigute, errealitatea eta fantasia kontrajarriz.

Idazterakoan duten estiloaren inguruan esan genezake poetikotasuna, lirikotasuna eta estetizismoa direla haien lanetako ezaugarri nagusiak. Honez gain, euren narrazioetako sinbolo eta metaforen bidez, atmosfera malenkoniatsuak sortzen dituzte irakurleari pentsatzeko bidea luzatzen diotelarik. Nire ustez, honen bitartez gu haien munduan barneratzea lortzen dute.

Lan osoan zehar ikusi dugun bezala, euren lanek badute antzekotasunik eta, berau, biek idazle berdinegandik edan dutelako dela esan dezakegu. Gainera, euren lanetan idazle askoren oihartzuna topa dezakegu, baita ekialdeko istorioen oihartzuna ere.

Aurretik aipatu ondorioak kontuan hartuz, euren ideiei tinko eutsi dietela ikus dezakegu, eta bakoitzak bere hizkuntzan egin den literatura ezagutzeaz gain mundu osokoa ere ezagutzen dutela garbi geratzen zaigu.

Edonola ere, euren bizitzak, narrazio-liburuak, bertan erabiltzen dituzten baliabideak, idazteko estiloa eta edandako iturriei erreparatuz, Sarrionandia eta Méndez Ferrínen artean antzekotasun handia dagoela esan dezakegu.

BIBLIOGRAFIA

- ALDEKOA, I. "Mendebaldea eta narraziogintza" in Hegats, Gasteizko Filologia eta Geografi-historia Fakultatean 1997-XII-2an emandako hitzaldia, *Sarrionandia urteurrenik gabe* jardunaldietan, 1997.
- ÁLVAREZ, Rosario; VILAVEDNA, Dolores (edizioaren koordinatzaileak). *Diccionario de la literatura galega: Homenaje a Xesús Alonso Montero*, Tomo I. Santiago de Compostela: Universidad, 1999.
- . *Cinguidos por unha arela común: Homenaje a Xesús Alonso Montero*, Tomo II. Santiago de Compostela: Universidad, 1999.
- AZKORBEBEITIA, Aitzpea. *Joseba Sarrionandia: Irakurketa proposamen bat*, Labayru Ikastegia. Bilbo: Amorebieta-Etxenoko Udala, 1998.
- BERNÁNDEZ, Carlos L.; INSUA, Emilio X.; MILLÁN OTERO, Xoxé M.; REI ROMEU, Manuel; TATO FONTAÍÑA, Laura. *Literatura galega. Século XX*. Vigo: Edicions A Nosa Terra, 2001.
- CAMINO NOIA CAMPOS, M^a. *A nova Narrativa Galega*. Vigo: Galaxia, 1992.
- GONZÁLEZ-MILLÁN, X. *A narrativa galega actual (1975-1984): Unha historia social*. Vigo: Xerais, 1996.
- KORTAZAR, J. *Pott Banda*. Bilbo: Bilboko Udala, 2003.
- MÉNDEZ FERRÍN, X.L. *Percival e outras historias*. Vigo: Galaxia, 1958.
- . *Con pólvora e magnolias*. Vigo: Xerais, 1976.
- . *Mugaldeko jendea*. Donostia: Elkarlanean, 1991.
- . *Percival en su bosque*. Madrid: Alianza editorial, 1997.
- OLAZIREGI, M. J. *Euskal eleberraren historia*, Labayru Ikastegia. Bilbo: Amorebieta-Etxanoko Udala, 2002.
- OTAEI, Lourdes. *Joseba Sarrionandia. Marinel Zaharraren kantua*. Bilbo: Labayru Ikastegia, 2000.
- SARRIONANDIA, J. *Narrazioak*. Donostia: Elkar, 1983.
- . *Atabala eta euria*. Donostia: Elkar, 1986.
- . *Ifar aldeko orduak*. Donostia: Elkar, 1990.
- TARRÍO VARELA, Anxo. *Literatura gallega*. Madrid: Taurus, 1988.